

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ZEHARKAKO ZERGEN ZERBITZUA

Ogasun Finantza eta Aurrekontu, Saileko foru diputatua, 433/2023 Foru Agindua, ekainaren 22koa, onestea Finantza Transakzioen gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko 604 eredu

2022ko martxoaren 23an, ALHAOn argitaratu zen Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 15eko 4/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, finantza transakzioen gaineko zerga Arabako Lurralde Historikoaren zerga ordenamenduan txertatzen duena. Eragiketan parte hartzen duten pertsonen edo erakundeen egoitza edozein dela ere eskuratzen diren akzioak zergapetzen ditu zerga honek.

Otsailaren 8an BOEn argitaratu zen otsailaren 8ko 1/2022 Legea, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea. Aldaketa horren ondorioz, bi zerga berri hitzartu dira, eta horietako bat Finantza Transakzioen gaineko Zerga izan da.

Indarreko Ekonomia Itunaren 34 bis artikulua jasotakoarekin bat etorritik, Finantza Transakzioen gaineko Zerga arautuko da estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berberekin. Hala ere, aitorten- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio aldi bakoitzeko sarrera epeak zehazteko ahalmena izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatu Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Zerga zorraren aitortpena eta ordainketa egiteko obligazioari dagokionez, subjektu pasiboak dagozkion autolikidazioak aurkezteko betebeharra xedatzeaz gainera, ezartzen da, erregelamenduz xedatutako baldintzetan, subjektu pasiboek autolikidazioak aurkeztu eta ondoriozko zerga zorra ordainduko dutela Espainiako lurraldean ezarrita dagoen balore gordailuzain zentral baten bitartez.

Zergaren likidazio aldia hilabete naturalarekin bat dator. Subjektu pasiboek autolikidazioa aurkeztu eta ateratzen den zerga zorraren zenbatekoa sartu beharko dute, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez ezartzen den leku, modu eta epeetan eta foru aginduan bertan zehaztutako edukiarekin.

Foru agindu honetan, Finantza Transakzioen gaineko Zergaren Autolikidaziorako 604 eredu berria onesten da, eta autolikidazio horiek aurkezteko epea eta modua ezartzen dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 604 eredu onestea

Finantza Transakzioen gaineko Zergaren autolikidaziorako 604 eredu onesten da, foru agindu honen I. eta II. eranskinetan agertzen dena.

I. eranskinak zergaren autolikidazioa jasotzen du, eta II. eranskinak informazio eranskinaren diseinu logikoak.

2. artikulua. 604 ereduak aurkeztu behar dutenak

Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 8. artikuluan aipatutako subjektu pasiboek aurkeztu behar dute 604 ereduak, eta dagokion zenbatekoa sartu.

Zergaren autolikidazioa honela aurkeztu eta sartuko da:

1. Espainiako lurraldean ezarritako balore gordailuzain zentral baten bitartez, zerga arautzen duen 4/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 10.3 artikuluan aipatutako jakinarazpena eta ordainketa egin dituen subjektu pasibo bakoitzaren izenean eta kontura.

2. Espainiako lurraldean ezarritako balore gordailuzain zentralaren bitartez aurkeztea ez dagokien gainerako kasuetan, subjektu pasiboak aurkeztu beharko du 604 ereduak, zerga arautzen duen 4/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 10.2 artikulua arabera.

3. artikulua. 604 ereduak aurkezteko epeak

Bat. Likidazio aldia hilabete naturalarekin bat etorriko da.

Bi. 604 ereduak likidazioaldiaren azken egunaren hurrengo hilabeteko lehenengo 25 egun naturaletan aurkeztu eta sartu beharko da. Hala ere, urtarrilean egin beharreko aurkezpena eta diru sarrera hil horren 31ra arte luzatuko da.

4. artikulua. 604 ereduak aurkezteko prozedura

604 ereduak nahitaez bide telematikoz aurkeztu beharko da, Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 6ko 32/2020 Foru Dekretuan (Arabako Foru Ogasunean aitortpenak eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza eta betekizun orokorrak arautzen dituena) eta azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduan (pertsona eta erakunde jakin batzuentzat zerga ereduak eta eskabideak Internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituena) xedatutakoarekin bat etorritik.

Ordaintzeko moduari dagokionez, 604 ereduak bankuan helbideratuta edo ordainketa gutun bidez ordaindu ahal izango da.

Xedapen gehigarria. Zergapetutako akzioak dituzten sozietateen zerrenda argitaratzea

Ogasun eta Finantza Sailak sozietateen zerrenda bat argitaratuko du urtero, urtarrilean, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa, Finantza Transakzioen gaineko Zerga aplikatzeko informazio hutsarekin. Sozietate horien akzioak zergapean egongo dira, Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 4. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letretan xedatutakoarekin bat etorritik. Zerrenda hori informazioa emateko izango da, eta letra horietan aipatzen diren baldintzak betetzen dituen sozietatea bertan ez egoteak ez du zergaren aplikazioa baztertzen.

Azken xedapena. Indarrean jartzea

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2023ko irailaren 1etik aurrera hasten diren likidazioaldiei dagozkien Finantza Transakzioen gaineko Zergaren autolikidazioei aplikatuko zaie.


Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 2a

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasunaren zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

ANEXO I

604 eredua. Transakzio Finantzarioen gaineko Zerga. Autoliquidazioa.

 Arabako Foru Aldundia Diputazioaren Foru de Alava www.araba.eus	Transakzio Finantzarioen gaineko Zerga Impuesto sobre las Transacciones Financieras	604
	AUTOLIKIDAZIOA • AUTOLIQUIDACIÓN Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sails Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos	

1. Aitorzailea		2. Ekitaldia eta zergaldia	
IFZ	Daiturak eta izena, edo sozietatearen izena	Ekitaldia	Zergaldia
LEI kidea	BIC kidea	Ordezkoa	901
Harremanetarako pertsona		Autoliquidazio zk.	902
Helbide elektronikoa	Telefonoa	Epez kampa eta errokatu- mendu bidaz aurkeztua	
Subjektu pasiboaren zerga egoitza Espainiko lurraldean Bide mota Bide publikoaren izena Zk. mota, Etxe zk. Zk. kalifik. Blokoa Ataria Eskua Solairua Altoa			
Helbidearen osagarria (adib. urbanizazioa, industrialdea, merkataritza zentroa...)		Herria / Herrigunea (udalerria ez bada)	
Udalerraren izena		Probintzia edo Lurralde Historikoa	
Subjektu pasiboaren zerga egoitza etzerrian Helbidea			
Helbidearen osagarria		Herrigunea / Herria	
Probintzia / Eskualdea / Estatua		Herrialdea	

2. Informaziorako eranskina	
Informazio eranskinarekin egiaztatgariaren zenbakia	

4. Likidazioa		
	ONARRIZKO ZERGAKIA	KUOTA
Zergaldian egindako eragiketa lotuak eta ez salbuetsiak	01	02
Zuzenketa	03	04
Zergaldian egindako eragiketa salbuetsiak	05	
Aldea (02)-(04)		06
Arabako Foru Aldundiari egotz dakioken zergaldian salbuetsita ez dauden eragiketa lotuen kuota		09
Arabako Foru Aldundiari egotz dakioken zergaldian egindako zuzenketa kuota		10
Arabako Foru Aldundiari egotz dakiokiena		11
Arabako Foru Aldundiari egotz dakiokien emaitza (09)-(10)		12
Kontzeptu (soilik autoliquidazio osagarria bada): Kontzeptu, ekitaldi eta zergaldi berako aurreko aitortzearen edo aitortzearen emaitza		06
Errokgaria		61
Berandutze korrituak		62
Autoliquidazioaren emaitza (12) - (06) + (61) + (62)		07

5. Lurraldearen arabera zerga ordaintetari buruzko informazioa (bakarrak administrazio batzuei ordaintzen dieten subjektu pasiboaren kasuan)						
	ARABA	GIPIUZKOA	BIZKAIA	NAFARRA	ESTATUA	
Zergaldian egindako salbuetsi gabeko eragiketa lotuen kuota	13	18	23	28	33	
Zergaldian egindako zuzenketa kuota	14	19	24	29	34	
Egotz daitekeen kuota, gurtira	15	20	25	30	35	
% egozgarria	16	% 21	% 26	% 31	% 36	%
Salbuetsitako eragiketa zenbatekoa	17	22	27	32	37	

RE 3/2018

II. ERANSKINA

604 EREDUAREN INFORMAZIO ERANSKINA BALIABIDE TELEMATIKOEN BITARTEZ AURKEZTEKO SORTZEN DIREN FITXATEGIEK EDUKI BEHARREKO DISEINU LOGIKOAK

A. 1 MOTAKO ERREGISTROA: AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

Subjektu pasiboaren identifikazio datuak sartu behar dira, 2 motako erregistroan jasotako informazioaren laburpen orokorrarekin batera.

(POSIZIOAK, IZAERA ETA EREMUEN DESKRIBAPENA)

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA Finkoa: "1".
2-4	Alfabetikoa	ERANSKIN EREDUA "ATF"
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA Eranskinaren zerga ekitaldiaren lau zifrak.
9-17	Alfanumerikoa	SUBJEKTU PASIBOAREN IFZ / I.K.I. Subjektu pasiboaren identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da. Eremu hau eskuinetara lerrokatuta egongo da. Azken posizioa kontrol karaktereari dagokio eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira, IFZri dagozkion betebeharrak arautzen dituzten arauetan jasotakoaren arabera. Identifikazio fiskaleko zenbakirik eduki ezean, esleitutako identifikazio kode indibiduala (I.K.I.) jarri behar da.
18-57	Alfanumerikoa	SUBJEKTU PASIBOAREN ABIZENAK ETA IZENA EDO SOZIJETATEAREN IZENA Pertsona fisikoa bada, honela idatzi behar dira izen-abizenak: lehen abizena, tarte bat, bigarren abizena, tarte bat, eta izen osoa, hurrenkera horrexetan nahitaez. Pertsona juridikoa edo errentak eratzkitzeko araubideko erakundea bada, sozietatearen izen osoa adierazi behar da anagramarik gabe. Eremu honetan ezin da inolaz ere idatzi merkataritza izenik.
58-107	Zuriuneak	HUTSIK
108-120	Alfanumerikoa	ERANSKINAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA Eranskinaren identifikazio zenbakia idatzi behar da.

1/2

121-122	Alfabetikoa	<p>Zenbaki sekuentzial bat izango da eta haren lehen hiru digituak ATF kodearekin bat etorriko dira. ERANSKIN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA</p> <p>Ohiz kanpoko bada ere, bigarren eranskin bat edo hurrengo besteren bat aurkeztu beharko balitz, eremu hauetako bat bete beharko litzateke, nahitaez:</p> <p>121 ERANSKIN OSAGARRIA: "C" jarri behar da, baldin eta eranskin hau aurkezteko arrazoia bada aurretik aurkeztu den ekitaldi edo aldi bereko beste eranskin batean agertu beharrekoak izan arren eranskin horretan jaso gabe geratu diren erregistroak sartzea.</p> <p>122 ORDEZKO ERANSKINA: "S" jarri behar da, baldin eta eranskina aurkeztearen helburua bada ekitaldi eta aldi bereko aurreko eranskin bat deuseztatzea eta erabat ordezkatzeta. Ordezko eranskin batek aurreko aitorten bakarra deusezta dezake.</p>
123-135	Alfanumerikoa	<p>AURREKO ERANSKINAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA</p> <p>«ERANSKIN OSAGARRIA» eremuan "C" jarri bada edo «ORDEZKO ERANSKINA» eremuan "S" jarri bada, osatu edo ordezkatzeko den eranskinaren identifikazio zenbakia jarri behar da.</p>
136-137	Zenbakizkoa	<p>13 posizioko eduki eremu alfanumerikoa. Bestela, ZEROZ bete behar da. ALDIA</p> <p>Eranskina zer aldira dagokion adierazi behar da. Kasuan kasuko aldira adierazi behar da, gako hauek erabilia:</p> <p>"01" Urtarrila "02" Otsaila "03" Martxoa "04" Apirila "05" Maiatza "06" Ekaina "07" Uztaila "08" Abuztua "09" Iraila "10" Urria "11" Azaroa "12" Abendua</p>
138-154	Zenbakizkoa	<p>AITORTUTAKO ERAGIKETEN KOPURU OSOA</p> <p>2 motako erregistroen kopuru osoa jarri behar da.</p>

155-171	Zenbakizkoa	<p>ERANSKINEAN JASOTAKO ZERGAPEKO ERAGIKETA SALBUETSI GABEEN KOPURU OSOA</p> <p>«ERAGIKETA-MOTA: ERAGIKETA SALBUETSI GABEA EDO SALBUETSIA» eremuan (2 motako erregistroaren 190 posizioa) "S" duten eta «ZUZENKETA» eremuan (2 motako erregistroaren 325 posizioa) edukirik ez duten 2 motako erregistroen kopurua jarri behar da.</p>
172-189	Zenbakizkoa	<p>ERANSKINEAN JASOTAKO ZERGAPEKO ERAGIKETA SALBUETSI GABEEN ZERGA OINARRI OSOA</p> <p>18 posizioko zenbakizko eremua.</p> <p>«ERAGIKETA-MOTA: ERAGIKETA SALBUETSI GABEA EDO SALBUETSIA» eremuan (2 motako erregistroaren 190 posizioa) "S" duten eta «ZUZENKETA» eremuan (2 motako erregistroaren 325 posizioa) edukirik ez duten 2 motako erregistro guztietako «ZERGAPEKO ERAGIKETA SALBUETSI GABEAREN ZERGA OINARRIA» (2 motako erregistroaren 242-259 posizioak) eremuen batura jarri behar da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe.</p> <p>Eremu honetan azpieremu bi daude:</p> <p>172-187 Zenbakizkoa. ZATI OSOA. Eranskinean jasotako zergapeko eragiketa salbuetsi gabeen zerga oinarri osoaren zati osoa jarri behar da.</p> <p>188-189 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA. Eranskinean jasotako zergapeko eragiketa salbuetsi gabeen zerga oinarri osoaren zati hamartarra jarri behar da.</p>
190-207	Zenbakizkoa	<p>ERANSKINEAN JASOTAKO ZERGAPEKO ERAGIKETA SALBUETSI GABEEN KUOTA OSOA</p> <p>18 posizioko zenbakizko eremua.</p> <p>«ERAGIKETA MOTA: ERAGIKETA SALBUETSI GABEA EDO SALBUETSIA» eremuan (2 motako erregistroaren 190 posizioa) "S" duten eta «ZUZENKETA» eremuan (2 motako erregistroaren 325 posizioa) edukirik ez duten 2 motako erregistro guztietako «AITORTUTAKO ERAGIKETAREN ONDORIOZKO ZERGA KUOTA» (2 motako erregistroaren 291-308 posizioak) eremuen batura jarri behar da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe.</p> <p>Eremu honetan azpieremu bi daude:</p>

		190-205 Zenbakizkoa. ZATI OSOA. Eranskinean jasotako zergapeko eragiketa salbuetsi gabeen kuota osoaren zati osoa jarri behar da.
		206-207 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA. Eranskinean jasotako zergapeko eragiketa salbuetsi gabeen kuota osoaren zati hamartarra jarri behar da.
208-224	Zenbakizkoa	ERANSKINEAN JASOTAKO ERAGIKETA SALBUETSIEN KOPURU OSOA «ERAGIKETA MOTA: ERAGIKETA SALBUETSI GABEA EDO SALBUETSIA» eremuan (2 motako erregistroaren 190 posizioa) "E" duten eta «ZUZENKETA» eremuan (2 motako erregistroaren 325 posizioa) edukirik ez duten 2 motako erregistroen kopurua jarri behar da.
225-242	Zenbakizkoa	ERANSKINEAN JASOTAKO ERAGIKETA SALBUETSIEN ZENBATEKO OSOA 18 posizioko zenbakizko eremua. «ERAGIKETA MOTA: ERAGIKETA SALBUETSI GABEA EDO SALBUETSIA» eremuan (2 motako erregistroaren 190 posizioa) "E" duten eta «ZUZENKETA» eremuan (2 motako erregistroaren 325 posizioa) edukirik ez duten 2 motako erregistro guztietako «ZERGAPEKO ERAGIKETA SALBUETSIEN ESKURAKETAREN ZENBATEKOA» (2 motako erregistroaren 273-290 posizioak) eremuan batura jarri behar da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Eremu honetan azpiero bi daude:
		225-240 Zenbakizkoa. ZATI OSOA. Eranskinean jasotako zergapeko eragiketa salbuetsien zenbateko osoaren zati osoa jarri behar da.
		241-242 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA. Eranskinean jasotako salbuetsi gabeko eragiketen zenbateko osoaren zati hamartarra jarri behar da.
243-259	Zenbakizkoa	ZUZENKETEN KOPURU OSOA «ZUZENKETA» eremuan (2 motako erregistroaren 325 posizioa) "X" duten 2 motako erregistroen kopurua jarri behar da.
260-278	Alfanumerikoa	ZERGA OINARRI OSOA / ZUZENKETEN ZENBATEKO OSOA 19 posizioko eremu alfanumerikoa. «ZUZENKETA» eremuan (2 motako 325 posizioa) "X" duten 2 motako erregistro guztietako «ZUZENKETAREN EMAITZA (ZERGA OINARRIA/ ZENBATEKOA)» eremuan (2 motako erregistroaren 387-405 posizioak) jasotako zenbateko guztien batura jarri behar da, koma hamartarrik gabe.

279-296	Alfanumerikoa	<p>Eremu hau honela banatzen da:</p> <p>260 ZEINUA:</p> <p>Aipatu berri den eragiketaren emaitza 0 (zero) baino gutxiago denean bete beharko den eremu alfabetikoa; kasu honetan, "N" idatziko da. Bestela, hutsik utzi behar da.</p> <p>261-278 ZENBATEKOA:</p> <p>18 posizioko zenbakizko eremua</p> <p>Gorago aipatu den eragiketaren ondoriozko zenbatekoa jarri behar da.</p> <p>Eremu honetan azpieremu bi daude:</p> <p>261-276 Zenbakizkoa. ZATI OSOA. Zuzenketen zerga oinarri osoaren zati osoa jarri behar da.</p> <p>277-278 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA. Zuzenketen zerga oinarri osoaren zati hamartarra jarri behar da.</p> <p>ZUZENKETEN ONDORIOZKO KUOTA</p> <p>18 posizioko eremu alfanumerikoa.</p> <p>«ZUZENKETA» eremuan (2 motako 325 posizioa) "X" duten 2 motako erregistro guztietako «ZUZENKETAREN ZENBATEKOA (KUOTA)» eremuan (2 motako erregistroaren 368-386 posizioak) jasotako zenbateko guztien batura jarri behar da, koma hamartarrik gabe.</p> <p>Eremu hau honela banatzen da:</p> <p>279 ZEINUA:</p> <p>Aipatu berri den baturaren emaitza 0 (zero) baino gutxiago denean bete beharko den eremu alfabetikoa; kasu honetan, "N" idatziko da. Bestela, hutsik utzi behar da.</p> <p>280-296 ZENBATEKOA:</p> <p>17 posizioko zenbakizko eremua.</p> <p>Eremu honetan azpieremu bi daude:</p> <p>280-294 Zenbakizkoa. ZATI OSOA. Zuzenketen ondoriozko zerga oinarriaren zati osoa jarri behar da.</p> <p>295-296 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA. Zuzenketen ondoriozko zerga oinarriaren zati hamartarra jarri behar da.</p> <p>LIKIDAZIO DATA TEORIKOAREN AUKERA BALIATZEA</p>
297	Alfabetikoa	5

298	Alfabetikoa	"X" jarri behar da urte natural bakoitzean aurkezten den lehenengo autolikidazioan, likidazio data teorikoaren aukera baliatuz gero. Gainerako kasuetan, eremu hori hutsik utziko da. LIKIDAZIO DATA TEORIKOAREN AUKERA ERREBOKATZEA
299-500	Zuriuneak	"X" jarri behar da urte natural bakoitzean aurkezten den lehenengo autolikidazioan, likidazio data teorikoaren aukera errebokatuz gero. HUTSIK

B. 2 MOTAKO ERREGISTROA: ERAGIKETEN ERREGISTROA.

2 motako erregistroan eragiketa bakoitzari buruzko informazioa eman behar da, erregistroarako irizpide hauen arabera:

(POSIZIOAK, IZAERA ETA EREMUEN DESKRIBAPENA)

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIPZIOA
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA Finkoa: "2".
2-4	Alfabetikoa	ERANSKIN EREDUA "ATF"
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA Eranskinaren zerga ekitaldiaren lau zifrak.
9-17	Alfanumerikoa	SUBJEKTU PASIBOAREN IFZ / I.K.I. Subjektu pasiboaren identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da. 1 motako erregistroko posizio beretan (9-17) dagoen identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da. Identifikazio fiskaleko zenbakirik eduki ezean, esleitutako identifikazio kode indibiduala (I.K.I.) jarri behar da.
18-75	Zuriuneak	HUTSIK
76-77	Zenbakizkoa	ALDIA Eranskina zer aldira dagokion adierazi behar da. Kasuan kasuko aldira adierazi behar da, gako hauek erabilia:

		<p>"01" Urtarrila "02" Otsaila "03" Martxoa "04" Apirila "05" Maiatza "06" Ekaina "07" Uztaila "08" Abuztua "09" Iraila "10" Urria "11" Azaroa "12" Abendua</p>
78-113	Alfanumerikoa	<p>TRANSAKZIOAREN ERREFERENTZIA EDO IDENTIFIKATZAILE BAKARRA</p> <p>Transakzioaren erreferentzia edo identifikatzaile bakarra jarri behar da, subjektu pasiboari informatutako operazioa eta likidazio aldia identifikatzeko aukera emango diona.</p>
114	Alfabetikoa	<p>NORBERE EDO BESTEREN KONTURAKO TRANSAKZIOA</p> <p>Gako hauetariko bat jarri behar da: P: Transakzioa subjektu pasiboak norberaren kontura egin badu. A: Transakzioa subjektu pasiboak hirugarrenen kontura egin badu.</p>
115	Alfabetikoa	<p>AURKEZPENA EGOITZA ESPAINIAKO LURRALDEAN DAUKAN BALORE GORDAILUZAIN ZENTRAL BATEN BIDEZ EGITEA (KASU-MOTA)</p> <p>Aurkezpena egoitza Espainiako lurraldean daukan balore gordailuzain zentral baten bidez egiten bada, hori zer kasutan egin den identifikatu behar da.</p> <p>Ondorio horietarako, gako hauetariko bat jarri behar da:</p> <p>A. Finantza transakzioen gaineko zergaren Erregelamenduaren 3.a) artikuluan jasotako kasua.</p> <p>B. Finantza transakzioen gaineko zergaren Erregelamenduaren 3.b) artikuluan jasotako kasua.</p> <p>C. Finantza transakzioen gaineko zergaren Erregelamenduaren 4.1.a) artikuluan jasotako kasua.</p> <p>D. Finantza transakzioen gaineko zergaren Erregelamenduaren 4.1.b) artikuluan jasotako kasua.</p>

		E. Finantza transakzioen gaineko zergaren Erregelamenduaren 4.1.c) artikuluan jasotako kasua.
		F. Finantza transakzioen gaineko zergaren Erregelamenduaren 2.2 artikuluan jasotako kasua.
116	Alfabetikoa	AURKEZPENA SUBJEKTU PASIBOAK EGITEA Eremu hau aurkezpena eta sarrera subjektu pasiboak egiten dituenetan bete behar da. Aurkezpena eta sarrera subjektu pasiboak egiten dituenetan, "X" gakoa jarri behar da. Gainerako kasuetan, eremu hori hutsik utziko da.
117-132	Zenbakizkoa	ESKURATUTAKO TITULUEN KOPURUA Aitortutako eragiketan eskuratutako tituluen kopurua adierazi behar da.
133-144	Alfanumerikoa	ESKURATUTAKO TITULUEN ISIN KODEA Eskuratutako tituluak identifikatzeko ISIN kodea jarri behar da.
145-153	Alfanumerikoa	JAULKITZAILEAREN IFZ Baloreen jaulkitzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da.
154-173	Alfanumerikoa	JAULKITZAILEAREN LEI KODEA Baloreen jaulkitzailearen LEI kodea jarri behar da.
174-181	Zenbakizkoa	LIKIDAZIO/ERREGISTRO DATA Likidazio data teorikoa jarriko da horretarako aukera baliatuz gero, eta, aukera hori baliatu ezean, erregistroan idatzoharra egiten den data. 174 - 177 Zenbakizkoa URTEA 178 - 179 Zenbakizkoa HILABETEA 180 - 181 Zenbakizkoa EGUNA
182-189	Zenbakizkoa	GAUZATZE DATA Zerga oinarria zehazteko erabilitako araua finantza transakzioen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 7.3 artikuluan jasotakoa denean bakarrik jarri behar da. 182-185 Zenbakizkoa URTEA 166-187 Zenbakizkoa HILABETEA 188-189 Zenbakizkoa EGUNA
190	Alfabetikoa	ERAGIKETA MOTA: ERAGIKETA SALBUETSI GABEA EDO SALBUETSIA

191

Alfabetikoa

Eragiketa motari buruzko informazioa jarri behar da, bi gako hauetako bat erabilita:

S: Zergapeko eragiketa salbuetsi gabea.

E: Zergapeko eragiketa salbuetsia.

ZERGAPEKO ERAGIKETA SALBUETSI GABEEN ZERGA OINARRIA ZEHAZTEKO MODALITATEAK

Zergapeko eragiketa salbuetsi gabeen kasuan, dagokion gakoa jarri behar da, zerga oinarria zehazteko finantza transakzioen gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 7. artikuluan jasotako modalitatearen arabera:

A: Gako hau jarri behar da zerga oinarria kontraprestazioaren zenbatekoa denean, honako hauek sartu gabe: merkatuko azpiegituren prezioen ondoriozko transakzio kostua, bitartekaritza komisioa eta eragiketarekin lotutako gainerako gastu guztiak. (Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 7.1 artikulua).

B: Gako hau jarri behar da zerga oinarria honako hau denean: eragiketa egin den egunaren aurreko negoziazio egunean baloreak likidezia handieneko araututako merkatuan eduki duen itxiera balioa. (Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 7.1 artikulua).

C: Baloreen eskuraketa obligazio edo bonu bihurtarri edo trukagarriek edo beste balore negoziagarri batzuek eragiten badute, zerga oinarria horien jaulkipen agirian adierazten den balioa izango da. (Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 7.2.a) artikulua).

D: Baldin eta eskuraketa eragiten duena zergaren kargapeko baloreak eskuratzeko edo eskualdatzeko eskubidea ematen duen erosteko aukera bat edo beste finantza tresna eratorri bat betearaztea edo likidatzea bada, zerga oinarria kontratuan ezarritako ekitaldiko prezioa izango da. (Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 7.2.b) artikulua).

E: Eskuraketa eperako transakzio bat osatzen duen tresna eratorri batetik datorrenean, zerga oinarria itundutako prezioa izango da, baldin eta tresna eratorri hori merkatu arautu batean negoziatzen ez bada; kasu horretan, mugaegunean zer entrega preziotan egin behar den eskuraketa, hori izango da zerga oinarria. (Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 7.2.c) artikulua).

F: Eskuraketa eragiten duena azaroaren 10eko EHA/3537/2005 Aginduaren 2.1 artikuluaen laugarren

9

192-207	Zenbakizkoa	<p>paragrafoan zehazten diren finantza kontratuetako baten likidazioa bada (agindu horren bidez Balore Merkatuaren uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 27.4 artikulua garatzen da), zerga oinarria honako hau izango da: eragiketa egin den egunaren aurreko negoziazio egunean baloreak likidezia handieneko araututako merkatuan eduki duen itxiera balioa. (Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 7.2.d) artikulua).</p> <p>G: Egun berean egindako eragiketen kasuan (Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 7.3 artikuluan jasotako eragiketak), zerga oinarria kasu horietarako artikulua horretan ezartzen dena izango da.</p> <p>ESKUALDATUTAKO TITULUEN KOPURUA</p> <p>Eremu hau «ZERGAPEKO ERAGIKETA SALBUETSI GABEEN ZERGA OINARRIA ZEHAZTEKO MODALITATEAK» eremuan (2 motako erregistroaren 191 posizioa) "G" agertzen denean bakarrik bete ahal izango da.</p> <p>EXENTAS" (posición 191 del registro tipo 2) tome el valor "G".</p>
208-223	Zenbakizkoa	<p>Eremu honetan, aitortu diren egun bereko eragiketetan eskualdatutako tituluen kopurua adierazi behar da.</p> <p>ESKURATUTAKO TITULU GORDINAK</p> <p>Eremu hau «ZERGAPEKO ERAGIKETA SALBUETSI GABEEN ZERGA OINARRIA ZEHAZTEKO MODALITATEAK» eremuan (2 motako erregistroaren 191 posizioa) "G" agertzen denean bakarrik bete ahal izango da.</p> <p>«ESKURATUTAKO TITULUEN KOPURUA» eremuan (2 motako erregistroaren 117-132 posizioak) eta «ESKUALDATUTAKO TITULUEN KOPURUA» eremuan (2 motako erregistroaren 192-207 posizioak) adierazitako kopuruen arteko aldea sartu behar da.</p>
224-241	Zenbakizkoa	<p>ESKURAKETEN ZENBATEKO OSOA</p> <p>Eremu hau «ZERGAPEKO ERAGIKETA SALBUETSI GABEEN ZERGA OINARRIA ZEHAZTEKO MODALITATEAK» eremuan (2 motako erregistroaren 191 posizioa) "G" agertzen denean bakarrik bete ahal izango da.</p> <p>2 motako erregistroaren 117-132 posizioetan adierazi diren eskuratutako tituluen kopuruari dagokion zenbatekoa jarri behar da.</p> <p>Zenbatekoak EUROTAN adierazi behar dira.</p> <p>Eremu honetan azpiero bi daude:</p> <p>224-239 Zenbakizkoa. ZATI OSOA. Eskuraketen zenbateko osoaren zati osoa jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p>

242-259	Zenbakizkoa	<p>240-241 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA. Eskuraketen zenbateko osoaren zati hamartarra jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p> <p>AITORTUTAKO ZERGAPEKO ERAGIKETA SALBUETSI GABEAREN ZERGA OINARRIA</p> <p>Aitortutako zergapeko eragiketa salbuetsi gabearen zerga oinarria jarri behar da, aintzat hartuta zer modalitate dagokion Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 7. artikulua arabera. Zenbatekoak EUROTAN adierazi behar dira.</p> <p>Eremu honetan azpiero bi daude:</p> <p>242-257 Zenbakizkoa. ZATI OSOA. Zerga oinarriaren zenbatekoaren zati osoa jarri behar da; edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p> <p>258-259 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA. Zerga oinarriaren zenbatekoaren zati hamartarra jarri behar da; edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p>
260-272	Alfanumerikoa	<p>APLIKAGARRI DIREN SALBUESPEN KASUAK</p> <p>Zergapeko eragiketa salbuetsien kasuan, eragiketari aplikagarri zaizkion salbuespen kasuak (bat edo gehiago) jarri behar dira, aintzat hartuta zer dioten Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5. artikulua; horretarako, gako hauek erabiliko dira ondoren adierazten diren posizioetan:</p> <p>260 Alfabetikoa A: Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.1.a) artikuluan jasotako salbuespena.</p> <p>261 Alfabetikoa B: Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.1.b) artikuluan jasotako salbuespena.</p> <p>262 Alfabetikoa C: Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.1.c) artikuluan jasotako salbuespena.</p> <p>263 Alfabetikoa D: Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.1.d) artikuluan jasotako salbuespena.</p> <p>264 Alfabetikoa E: Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.1.e) artikuluan jasotako salbuespena.</p> <p>265 Alfabetikoa F: Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.1.f) artikuluan jasotako salbuespena.</p> <p>266 Alfabetikoa G: Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.1.g) artikuluan jasotako salbuespena.</p>

273-290	Zenbakizkoa	<p>267 Alfabetikoa H: Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.1.h) artikuluan jasotako salbuespena.</p> <p>268 Alfabetikoa I: Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.1.i) artikuluan jasotako salbuespena.</p> <p>269 Alfabetikoa J: Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.1.j) artikuluan jasotako salbuespena.</p> <p>270 Alfabetikoa K: Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.1.k) artikuluan jasotako salbuespena.</p> <p>271 Alfabetikoa L: Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.1.l) artikuluan jasotako salbuespena.</p> <p>272 Alfabetikoa M: Beste salbuespen kasu batzuk. Gako hau erabiltzen denean nahitaez adierazi behar da «DESKRIPZIOA» eremuan (2 motako erregistroaren 406-449 posizioak) aplikatutako salbuespena.</p> <p>ZERGAPEKO ERAGIKETA SALBUETSIAEN ESKURAKETAREN ZENBATEKOA</p> <p>Zergapeko eragiketa salbuetsiaren zerga oinarriaren zenbatekoa jarri behar da.</p> <p>«ERAGIKETA MOTA: ERAGIKETA SALBUETSI GABEA EDO SALBUETSIA» eremuan (2 motako erregistroaren 190 posizioa) "E" ageri denean bakarrik bete behar da. Zenbatekoak EUROTAN adierazi behar dira.</p> <p>Eremu honetan azpiero bi daude:</p> <p>273-288 Zenbakizkoa. ZATI OSOA. Zergapeko eragiketa salbuetsien eskuraketaren zenbatekoaren zati osoa jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p> <p>289-290 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA. Zergapeko eragiketa salbuetsien eskuraketaren zenbatekoaren zati hamartarra jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p>
291-308	Zenbakizkoa	<p>AITORTUTAKO ERAGIKETAREN ONDORIOZKO ZERGA KUOTA</p> <p>Zergapeko eragiketa salbuetsi gabearen zerga kuotaren zenbatekoa jarri behar da.</p> <p>«ERAGIKETA MOTA: ERAGIKETA SALBUETSI GABEA EDO SALBUETSIA» eremuan (2 motako erregistroaren 190 posizioa) "S" ageri denean bakarrik bete behar da. Zenbatekoak EUROTAN adierazi behar dira.</p> <p>Eremu honetan azpiero bi daude:</p>

309-316	Zenbakizkoa	<p>291-306 Zenbakizkoa. ZATI OSOA. Zerga kuotaren zenbatekoaren zati osoa jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p> <p>307-308 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA. Zerga kuotaren zenbatekoaren zati hamartarra jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p> <p>INFORMAZIOA BALORE GORDAILUZAIN ZENTRALARI JAKINARAZI ZAION DATA</p> <p>Adierazi behar da zer datatan jakinarazi dion subjektu pasiboak balore gordailuzain zentralari Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 5.2 artikuluan jasotako informazioa.</p> <p>309-132 Zenbakizkoa URTEA</p> <p>313-314 Zenbakizkoa HILABETEA</p> <p>315-316 Zenbakizkoa EGUNA</p>
317-324	Zenbakizkoa	<p>SUBJEKTU PASIBOAREN ORDAINKETAREN DATA</p> <p>Adierazi behar da subjektu pasiboak zer datatan egin dion ordainketa balore gordailuzain zentralean partaidetza duen entitateari.</p> <p>Ez da bete behar subjektu pasiboa egoitza Espainiako lurraldean balore gordailuzain zentralean partaidetza duen entitatea bada.</p> <p>317-320 Zenbakizkoa URTEA</p> <p>321-322 Zenbakizkoa HILABETEA</p> <p>323-324 Zenbakizkoa EGUNA</p>
325	Alfabetikoa	<p>ZUZENKETA</p> <p>Eremu hau bete behar da erregistroa Finantza Transakzioen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 10. artikulua arabera egindako zuzenketa bati dagokionean.</p> <p>Erregistroa zuzenketa bati dagokionean, "X" gakoa jarri behar da.</p>
326-329	Zenbakizkoa	<p>Gainerako kasuetan, eremu hori hutsik utziko da.</p> <p>ZUZENDUTAKO ERAGIKETAREN EKITALDIA.</p> <p>Zuzentzen den eragiketa aitortu zen zerga ekitaldiaren azken lau zifrak.</p>
330-331	Zenbakizkoa	<p>ZUZENTZEN DEN ERAGIKETAREN ALDIA</p> <p>Zuzentzen den eragiketa zer alditan aitortu zen adierazi behar da.</p> <p>Kasuan kasuko aldia adierazi behar da, gako hauek erabilia:</p> <p>"01" Urtarrila</p>

		<p>"02" Otsaila "03" Martxoa "04" Apirila "05" Maiatza "06" Ekaina "07" Uztaila "08" Abuztua "09" Iraila "10" Urria "11" Azaroa "12" Abendua</p>
332-349	Zenbakizkoa	<p>ZUZENDUTAKO ZERGA OINARRIA / ZUZENDUTAKO ZENBATEKOA Finantza Transakzioen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 10. artikulua araberako zuzenketa egitearen ondoriozko zerga oinarriaren edo eragiketa salbuesiaren zenbatekoa adierazi behar da. Zenbatekoak EUROTAN adierazi behar dira. Eremu hau honela banatzen da: 332-347 Zenbakizkoa ZATI OSOA. Zuzendutako zerga oinarriaren zenbatekoaren zati osoa jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. 348-349 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA. Zuzendutako zerga oinarriaren zenbatekoaren zati hamartarra jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p>
350-367	Zenbakizkoa	<p>ZUZENDUTAKO ZERGA KUOTA Finantza Transakzioen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 10. artikulua araberako zuzenketa egitearen ondoriozko zerga kuotaren zenbatekoa adierazi behar da. Zenbatekoak EUROTAN adierazi behar dira. Eremu honetan azpiero bi daude: 350-365 Zenbakizkoa. ZATI OSOA. Zuzendutako zerga kuotaren zenbatekoaren zati osoa jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. 366-367 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA. Zuzendutako zerga kuotaren zenbatekoaren zati hamartarra jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p>
368-386	Alfanumerikoa	<p>ZUZENKETAREN ZENBATEKOA (KUOTA) Eremu honetan azpiero bi daude: 368 ZEINUA: Eremu alfabetikoa. "N" bat jarri behar da zuzenketaren zenbatekoa zerotik beherakoa denean. Bestela, hutsik utzi behar da. 369-386 ZENBATEKOA:</p>

387-405	Alfanumerikoa	<p>18 posizioko zenbakizko eremua. «ZUZENDUTAKO ZERGA KUOTA» eremuan (2 motako erregistroaren 350-367 posizioak) eta «AITORTUTAKO ERAGIKETAREN ONDORIOZKO ZERGA KUOTA» eremuan (2 motako erregistroaren 291-308 posizioak) adierazitako kopuruen arteko aldea jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. Zenbatekoak EUROTAN adierazi behar dira. Eremu honetan azpiero bi daude: 369-384 Zenbakizkoa. ZATI OSOA. Zuzenketaren zenbatekoaren zati osoa jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. 385-386 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA. Zuzenketaren zenbatekoaren zati hamartarra jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. ZUZENKETAREN EMAITZA (ZERGA OINARRIA / ZENBATEKOA) Eremu honetan azpiero bi daude: 387 ZEINUA: Eremu alfabetikoa. "N" bat jarri behar da zuzenketaren zenbatekoa zerotik beherakoa denean. Bestela, hutsik utzi behar da. 388-405 ZENBATEKOA: 18 posizioko zenbakizko eremua. «ZUZENDUTAKO ZERGA OINARRIA / ZUZENDUTAKO ZENBATEKOA» eremuan (2 motako erregistroaren 332-349 posizioak) eta «AITORTUTAKO ZERGAPEKO ERAGIKETA SALBUETSI GABEAREN ZERGA OINARRIA» eremuan (2 motako erregistroaren 242-259 posizioak) adierazitako kopuruen arteko aldea jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. Zenbatekoak EUROTAN adierazi behar dira. Eremu honetan azpiero bi daude: 388-403 Zenbakizkoa. ZATI OSOA. Zuzenketaren zenbatekoaren zati osoa jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. 404-405 Zenbakizkoa. ZATI HAMARTARRA. Zuzenketaren zenbatekoaren zati hamartarra jarri behar da. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.</p>
406-449	Alfanumerikoa	<p>DESKRIPZIOA Testu libreko eremua.</p>
450-500	Zuriuneak	<p>HUTSIK</p>